

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Onestea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2021eko errolda**

Alkatearen 2021eko otsailaren 17ko Dekreturen bidez, Okondon 2021ean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen errolda onetsi zen.

Errolda jendaurrean egongo da 15 eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek aukera izan dezaten errolda aztertzeko eta, hala badagokio, egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Interesdunek espedientea udal bulegoetan (Zudubiarte kalea, 1) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldaren onespeneraren eta bertan jasotako likidazioen aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalbatzari, hilabeteko epean, jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera. Errolda jendaurrean dagoen artean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da eta ordaintzeko epea irekiko da. Epe hori bi hilabetekoa izango da, 2021eko apirilaren 1etik maiatzaren 31ra arte, hain zuzen ere.

Borondatezko aldia ordaintzeko epea amaitu eta ordaindu ez diren kuotentzat betearazteko aldia hasiko da, berez eta besterik gabe, eta berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatuko dira, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Ordainketak bankuetan helbideratuta dituzten zergapekoek ez dute inolako izapiderik egin behar, eta bankuak maiatzaren 6an egingo du zordunketa. Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2021eko otsailaren 23a

*Alkatea*

**JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO**